


Aretxagazeta

Parrokiaren inauguratze elizkizuna zapatuan



ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Milaka olio litro
bildu da herrian /8**

BOTEPRONTOAN

**Lydia García,
Yoga irakaslea /9**

LEINTZ GATZAGA

**San Milixanen
biharamuna /10**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 17
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 18
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

| | |
|-----------------------------|--------------|
| Almen | 943 71 49 07 |
| Arexagazeta | 943 79 86 21 |
| Fax | 943 77 18 54 |
| Basobxo | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Gizarte-Laguntzailea | 943 71 18 62 |
| Hezibide Elkarte | 934 79 31 32 |
| Industrialdea | 943 79 62 80 |
| Institutua | 943 79 79 00 |
| Kiroletxea | 943 71 26 28 |
| Kultura etxea | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri B.H.I. | 943 79 57 40 |
| Liburutegia | 943 71 18 62 |
| Loramendi E.E | 943 77 09 70 |
| Ludoteka | 943 79 05 81 |
| Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| Murruxio M.E. | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| Osasun zentroa | 943 79 74 58 |
| Otalora | 943 71 24 06 |
| Parrokia (Bulegoa) | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur-Esk. | 943 77 03 77 |
| Postetxea | 943 79 28 31 |
| Santa Rita Ikastetxea | 943 79 17 00 |
| Saretxo | 943 71 26 56 |
| Taxi Geltokia | 943 79 22 33 |
| Udal Bulegoak | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa | 943 71 18 63 |
| Urats Gain | 943 79 99 11 |

UDALZAINGOA

Arrasate

LARRIALDIAK

| | |
|------------------------------|--------------|
| SOS Delak | 112 |
| Eskualde-Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| Gurutze-Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdia | 943 46 11 11 |
| Suhiltzaileak (Ofiati) | 943 78 28 00 |

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA

Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

AZATZAN

Domekak: 12:30

ARKARAZON

Domekak: 12:30

OHARRAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIAREN INAUGURAZIOA
Bihar, zapatua, herriko parrokia nagusiaren inaugurazio ofiziala egingo da. 19:00etan, Aitor Antxia Leturiak elizaren gainean idatzitako liburuaren aurkezpena egingo du. Gero, 19:30ean, meza esango da. Elizkizunetan Donostia-ko elizbarrutiko gotzainak hartuko du parte.

LUR KORTA IPUIN KONTALARIA

LIBURUTEGIAN
Lur Korta ipuin kontalaria ekitaldia egingo du azaroaren 22an liburutegian. Ipuin kontaketa saioa 6. mailako umeendako izango da.

1974. URTEAN JAIOTAKO

KINTOEN BAZKARIA
Azaroaren 17an, 1974. urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Bizkaia aldean. Autobusa goizeko 10:30ean irtengo da Azbeko geltokitik.

NAGUSIENDAKO EUSKAL

DANTZA IKASTAROA
Gaur, egubakoitza, nagusiendako euskal dantza ikastaroa hasiko da musika eskolan, arratsaldeko 19:15ean. Lehenago izena emandakoez gain, berriak ere joan daitezke ikastaro horretara, hortaz, animatu eta parte hartu!

LORAMENDIRENAGENDA

HITZALDIA: 'ITSASOA GALDU

ZUTENEO NAFARRO'
Patxi Zabaletak *Itsasoa galdu zuteneko Nafarroa* izeneko hitzaldia egingo du datorren hilaren 22an, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

LOREAK ZELAN ZAINDU?

Ixiar Lazkanok loreak zelan zaindu azalduko du hilaren 29an, eguena, udaletxe zaharrean egingo duen hitzaldian.

ORAINDELA...

Goitibeherak
Arkarazoko
San Millan
jaietan

1991. urtean utzi zioten Arkarazoko San Millanetan goitibehera jaitsierak antolatzeari. Azaroaren erdialdean ospatzen ziren festak eta, duda barik, goitibeherak ziren jaietako ekitaldirik ospetsuenak. Gerora, Diputazioa trabak jartzen ekin zen, goitibeherak bidea apurtzen zutelako.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Subalinddara"

1. Sugandila.
 2. Geldigaitza, ipurtarina, geldi egon ezin dena. Umeen inguruan, batik bat.
- Geldi egon ari, subalinddarioi.




ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Iñigo San Juan
12an. Urte askotarako!
Koadrilakoen partetik.




ARETXABALETA
Kristina Gomez
12an. Zorionak eta urte askotarako!
Etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Iñigo Zubia
17an, 25 urte. Urte askotarako!
Lagunen partetik.



ARETXABALETA
Aitor Iturbe
20an. Urte askotarako!
Lagunen partetik.



ARETXABALETA
Xabier Mendizabal
22an. Urte askotarako!
ARETXAGAZETako partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!
Irizar jauregian gaituzu: Durana, 11.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda


HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* ESKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dukanik !!!

Kalitate goreneko
estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Gustau jatzu parrokie barrittute? Ze da gehixen gustau jatzune?




MARIA JAUREGI
Erretiraue




ARANTXA MARRODAN
Langillie




MIREN ZUAZABEITIA
Erretiraue



MARTZELINO UGALDE
Erretiraue



FELIX MADINABEITIA
Langillie



TIMOTEO ZUAZUA
Erretiraue

Bai, lehen ondo euen, eta oin be oso politto dago, modernuagoe da. Dana gustau jat, atiek izen ezik. Barruko aldien jarri dittuen kristelezko atietatik hasieran ezin asmaute ibilli nitzen.

Bai, garbi itxurie daukoko, baiñe sapaiko kolore urdiñe modernuegixe pentsau jat. Lehenengo begiradan dana gustau jat, baiñe detallietan begire hasi ezker, beti dago zeozer.

Ondo dagoela pentsetan jat, baiñe nik Kristo gurutziltzatue dagoen lekuen Amabirjiñe jarriko neukien, lehengo moduen. Kapillako Kristue eta Dolorietako Ama gustau jat gehixen.

Bai, oso politto geratu dala uste dot. Aldarie gustau jat gehixen, eta alboko horretan jarri dauen kalbarixue be bai. Kapilla aldien jarri dauen Kristue, barriz, ez dakit.

Ez dot ikusi ba ondiokan. Baiñe ez dot pentsetan kanbixo haundirik egongo zanik, seguru nau santuek euren lekuen jarraituko dauela, betiko mosu seri ez dakit.

Bai, ondo ikusi dot barrittute. Lehen ondo euen, eta oin be bai. Kristelezko atiek gustau jat, baiñe zaharondako ez dakit oso egokixek dien, bistie galdu egi tten jaku-eta han.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK ZULOA ERREPIDEAN Ez da zulo handia, beste munduko arriskurik ere ez dakar, baina badira bi hilabete pasatxo hesi eta guzti Araba ibilbidean zuloa dagoela. Traba baino ez dute egiten hesiek, eta jarri zizkioten abisu argiak erre egin zaizkio. Hortaz, bada zerbait egiteko ordua. Tokatzen zaionak har dezala ardura, eragozpenak sortzeaz gain, ezustekoren bat gerta daiteke-eta. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ELIZA /4

KULTURA /5

KIROLA /6

Parrokiaren inauguratzea

Zapatuan egingo da Parrokia inauguratze elizkizuna. Gotzaina ere bertan izango da.

Loramendi lehiaketa

Loramendi euskara elkarteak eskola arteko XIII. Loramendi literatur lehiaketa jarri du martxan.

Xabier Sarasuari beka

Xakearen inguruko materiala euskaraz lantzeko beka eman diote Xabier Sarasua atxabaltarrari.

ASTEKODATUA

5

LAGUNEK EMAN DUTE IZENA PEI-EHORZLE POSTURAKO

Udalak kaleratu duen pei-ehorzle posturako izena emateko epea martitzenean bukatu zen. Bost lagun baino ez dira aurkeztu, eta bost horietatik bik, behintzat, ez dakite euskaraz.


BESTEKEESANA

“Aretxabaletako herriarekin eta Udalarekin izandako harreman eta bizitza luzea, 500 urteko

bizitza luzea jaso da: pasadizoak, ohiturak, zenbait berezitasun, obrak direla... Hau ikusterakoan jendeak esaten du: “Joño, samurra da gero hartu eta idatzi eta...” Baina nire lehenengo bidaia Kalagorri orain hamalau urte egin nuen, eta han XVI. mendeko lehenengo bisita liburuak topatu nituen, badakizue Aretxabaleta eta Gipuzkoa gehiena Kalagorriko gotzainaren mende zegoela. Poliki-poliki hara joan, Donostiako elizbarrutiko artxibategira joan, udaletxekora, hemen parrokiaren daukaten artxibategira, Oñatikora, Mondragoekora... Orduak dira gero, ezin dira batu, baina ordu askoko lana dago.

AITOR ANTIXIA LETURIA
GOITB/01-11-13

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



‘Goienkaria’ tren

Bada denboratxo bat *Goienkaria* trenak kea botatzen hasi eta gurupilak biraka jarri zituenetik. Hala ere, gogoan daukagu orain dela gutxi beste zazpi bagoi eta hauentzako geltokiak gehitu zitzaizkiola *Goienkaria* tren handiari. Jada, ohitu egin gara gure herrietan berriz ere tren ikustera eta txistu soinu entzuterara.

1. estazioa: *Ze barri* bagoiak Leintz-Gatzagan hartzen du atsedean, bertatik, 2. estaziora iristen da, Eskoria-tzara, alegia.
3. estazioa: ARETXAGAZETAren geltokia dago.
4. estazioa: *Arrasate Pressen* geltokia, presazko herri honetan dago.
5. estazioa: *Txirritola* bagoiak geltokia duen lekua Aramaixo da. Hona ere makina bat ikatz gastatu ondoren heltzen da tren.
6. estazioa: Bergaran da *Berrigarak* arnas hartzeko duen lekua.
7. estazioa: *Kontuola* bagoia

kontuz josita iristen da Antzuola partera.

8. estazioa: Goiko eta beheko kaleak pasatu ondoren, herri erdian egiten du stop *Goibekokale* azken bagoiak.

Hurrengo estazioa? ... Momentuz, hauxe da *Goienkariak* egiten duen bidaia, eta ez da gutxi! Poliki-poliki herri gehiagotara joateko aukera eskainiko digu, eta ea hala den!

Orain ez zaie herdoilik ikusten errailei, hauek ere lehengora bueltatu dira. Lehengora itzuli behar garenak oster, *Goienkaria*

ren erabiltzaileak izan behar gara, tren honek bidaiatzen luzaro iraungo badu, denok bota beharko diogu ikatza.

ARETXAGAZETAren bagoitik, gonbita luzatzen dizuet bidaia honetan parte hartzera eta denon artean honi animua eta bultzada ematera. Ez dakizue zelan ikusten diren inguruko bazterrak txoko honetatik. Beste barik, hurrengo geltokira arte! Bidaia on, lagun!

“Tren honek bidaiatzen luzaro iraungo badu, denok bota beharko diogu ikatza”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Edurrak kuku

Lehenengo edurrak heldu dira gurera. Neuk ere ez nuen galdu edurra probatzeko aukera. Degurixan egon nintzen zapatuan, eta jende pila bat zegoen. Batzuk plastikoaz zelaian behera, beste batzuk mendian gora, eta eskiekin eta tablarekin banaka batzuk. Ni, behintzat, umeen moduan ibili nintzen eta beste batzuk ere antzera ikusi nituen. Hala ta be, edurzaleok ez larritu, barriro be edurra etorriko dela esan dute eta eguraldi gizonek.

Edurra ez, baina dantzaz gustatzen zaizuenontzat nagusien dantza ikastaroa antolatzeke asmoa dago berriro ere. Oraingon neuk ere apuntatzeko asmoa dut, Arin-arin eta Fandagoa, behintzat, behingoagatik ondo ikasi gura ditut. Eta horren polita den Larrin dantza ere bai. Aber mutilak animatzen diren oraingo honetan.

Dantza kontuak alde batera utzita, azkenean iritsi zaigu egun haundia. Datorren zapatuan egingo da parrokiaren inauguratze ekitaldi ofiziala, eta Juan Mari Uriarte gotzainak zuzenduko du ospakizuna. Hemendik txalo bero bat eliza hain polito eta ttukun gelditu dadin lan egin duzuen guztioi. Horregatik, zuoi txalo zaparrada luze batekin agurtuko zaituztet aste honetan.

ELIZA/ Juan Maria Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzainak inauguratuko du Andre Mariaren Zeruratze Parrokia

Aretxabaletako parrokia berriaren inaugurazio elizkizuna zapatuan izango da

MIRARI ALTUBE

Zapatuan inauguratuko da Aretxabaletako parrokia berriua. Urtebetez konponketa lanetan izan ostean, irailko azken zapatuan zabaldu zuten. Orain, berriz, inaugurazio ekitaldi ofiziala egingo dute Juan Maria Uriarte gotzainaren eskutik.

Urtebete iraun dute lanek, eta tartetara horretan, kanpoaldetik eta barrualdetik berriro dute parrokiak. Ez bakarrik parrokiak, baita han dauden lokalak ere.

ALDAKETA ASKO BARRUALDEAN

Parrokian egin beharreko berrikuntzak erabakitzeke batzorde bat hautatu zuten. Hala ere, egunero-egunero lanei jarraipena egin dioteneke egin dituzte aukeraketak.

Aldarean oso leku gutxi egonda, erretaularen ordezkariak eskailazko zutabeak jarri dituzte Kristo gurutziltzatuaren inguruan. Aurrealdeko hormak hutsik zuzenduta ikusita, alde baten sagraioa eta Amabirjina eta bestean bataioke pontea eta San Jose jarri dituzte. Alboetako hormetan, berriz, santuen pirogratuak kendu eta XIX. mendeko kalbarioa atera dute, garbitu eta berriro ostean. Hormak margotu egin dituzte. Hori, eta sabaia urdin, margo zuria gorabehera eta akats asko erakusten zituelako.

Kapera txikian Kristoa eta Doloretako Ama jarri dituzte, jendearen esanei kasu eginda. Kristoa, gainera, Isidoro Uribealago eskultore atxabaltarrak egin du. Antonio Astigarraga parrokiakozik dago egindako konponketekin: "Egia da arte aldetik aberastasun handirik ez daukagula, baina arbasoek hauxe utzi digute eta kultura aldetik besterik ez bada ere, estimatu egin beharko genuke. Hauen bitartez janaritu dute, gainera, atxabaltarrek euren fedea urteetan".

Kanpoaldean egindako konponketen artean, kanpandorrean argia jarri dute, lehen bezala, eta kanpaiak jotzeko irratiarekin



Herritarrek gustura daude parrokiako barrualdean egin diren aldaketekin.

programatu dituzte.

USTE BAINO OKERRAGO

Hasiera baten aurrez ikusitako aurrekontua gehitu egin da, kanpoaldean uste baino okerrago aurkitu dutelako. Teilatua eta kape-

ra txikia konpontzea izan da gaitzena, baita diru kontuak igo dituen ere.

Lanak hasi zituztenean 100 milioi inguru aurrez ikusi zituzten, eta horietatik 30 herritarrei eskatu zizkieten. 35 milioitik gora

eman dituzte atxabaltarrek. Hala ere, aurrekontuak gora egin du, 119 milioi gastatu dituzte, eta 14 milioiko defizita dago orain. 14 horietatik zazpi parrokiak plazan dituen lokalak konpontzeko erabiliko dituzte.

XV. mendetik gaur arteko kontuak batuta

Aitor Antxia Leturia atxabaltarrak XV. mendean hasi eta gaur arte Aretxabaletako parrokiaren inguruan artxiboetan idatzitako gutzia jaso du: XV. eta XVI. mendeetako aipamen dokumentalak, XVII. mendeko obrak eta usadioak, XVIII. ean, obra nagusiak, XIX. ean Bedarretako kanposantu berria eta XX. mendean gure aiton-amonen garaitik gaur egun arteko kontuak. Datu



teknikoez gain, garai haietako eguneroko bizitzarekin lotutako kontu eta pasadizo kurioak batu ditu liburuxkan.

Zapatuan, gainera, inaugurazio elizkizuna baino lehen, Aitor Antxiak berak aurkeztuko die herritarrei liburua. Liburuxka hauek parrokiak konpontzeko dirua eman dutenen artean eta interesa dutenen artean banatuko dira.

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKLU

URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

HAURRAK



UMEENDAKO
MODA

Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86
Aretxabaleta

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14
ARETXABALETA

KULTURA / Aretxabaletan bizi edo ikasten duten ikasleek parte har dezakete

XIII. Loramendi literatura lehiaketa abian da

MIRARI ALTUBE

Loramendi euskara elkarteak Aretxabaletako eskola arteko XIII. Loramendi literatura lehiaketa jarri du abian. Urtero legez, Aretxabaletako eskolatan ikasten duten edo herrian bertan bizi diren Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle guztiei egin diete deialdia.

Urtero moduan, aurten ere, bi ataletan banatu da Loramendi literatura lehiaketa. Lehen Hezkuntzako ikasleek ipuina eta poesia landu beharko dituzte. Atal horretan, gainera, 2. zikloa eta 3.a banandu egingo dira, eta ziklo bakoitzean D eredukoak eta B edo murgiltze eredukoak bereizita hartuko dira kontuan. Gaia librea izango da eta gutxienez bi orriko luzera izan beharko du.

IPIUIN, KANTU, KONTU ZAHAR BILKETA
DBHko ikasleek, berriz, nagusien ahotik entzundako kantu zaharrek, ipuin eta pasadizoak, ohiturak, edo ogibide zaharren inguruko azalpenak grabatu behar dituzte. Hemen ere bi maila egingo dira, DBHko 1. zikloa eta 2.a.

*DBHko ikasleek
nagusiei
grabatutako kantu,
ipuin, ohiturak...
batu behar dituzte*

*Iaz, 150 lan
aurkeztu zituzten,
eta aurten ere,
antzeko kopurua
jasotzea espero dute*

Bakarka zein taldeka parte hartzeko aukera izango dute. Lanak, ostera, audio-zintetan aurkeztu behar dira, eta horrekin batera, grabaketari dagokion aurkibidea Din A-4 orrian joan beharko da. Grabaketak, bestalde, 30 minutu baino gehiago ezin izango ditu izan.

Lan guztiak, bai Lehen Hez-

kuntzakoak bai DBHkoak, argitaratu bakoak eta euskaraz izan beharko dira. Eta ikasle bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

ABENDUAREN 14A BAINO LEHEN

Lanak *Eskola Arteko XIII. Loramendi literatura lehiaketa* dioen gutun-azal baten barruan eroan behar dira Loramendi elkartera. Kanpoaldean, lanaren izenburua, gaitzizena eta ikasten dabilen maila adierazi behar dira, eta barruan norberaren datuak. Epea abenduaren 14an bukatuko da, eta sari banaketa, berriz, 2002ko urtarriaren 17an egingo dute. Lehen Hezkuntzako sariak bonotan emango dira, eta herriko dendetan trukatzeko izango dira. Par-taide guztiek jasoko dituzte, gainera, sariak. DBHkoek 30.000 eta 10.000 pezeta bitarteko sariak jasoko dituzte.

Loramendi literatura lehiaketa Kurtzebarri eta Almeneko ikasleen artean arrakasta handia duen lehiaketa da. Iaz, 150 lan aurkeztu zituzten, eta aurten ere, antzeko kopurua jasotzea espero dute aipatutako euskara elkar-tean.

LABUR

Katastroaren balioaren inguruko datuak postaz bidaliko ditu Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtatutako eskutitzak bidaliko ditu datozen egunetan etxe guztietara, katastroaren balio berrien emateko. Eskutitz horien aurrean herritarrei sortuko zaizkien kezka eta galdera guztiei, bestalde, Udaleko Kontu hartzailetza Bulegoan emango dizkiete erantzuna. Telefono zenbaki bat ere jarriko da horretarako.

Jende ugari aurkeztu da Udalak kaleratutako kultura teknikari laguntzaile postura

Bukatu dira kultura teknikari, kultura teknikari laguntzaile eta peoi-ehorzle postuetarako izena emateko epeak. Lehenengoa barne promozioko postua da, eta bakarra aurkeztu da. Kultura teknikari laguntzaile posturako, berriz, hogeita hamarren bat agertu dira. Peoi-ehorzlerako, azkenik, bostek besterik ez du eman izena.

Igor Bastardo da irailaz geroztik Aretxabaletako bake epaile berria

Igor Bastardo da irailaz geroztik bake epaile lanean dabilena, eta dagoeneko bikote bat ere ezkondu du. Hala ere, zaila da hura Udaletxean harrapatzea, bake epaitegiko lan gehienak idazkariak eta laguntzaileak egiten dituzte-eta. Azken horiek egunero egoten dira, goizetan, eta Igor eguaztenetan pasatzen da Udaletxetik.


Juana Arranz Aretxabaletako emakume nagusiena hil zen astelehenean 98 urterekin

Juana Arranz Salvador Aretxabaletako emakume nagusiena hil zen astelehenean, 98 urte zituela. Azken urteak Urats-gain zaharren egoitzan pasatu zituen Juanak. Orain, Fernanda de Andres Martínez da herriko emakume nagusiena, eta datorren urteko otsailaren 20an, 97 urte beteko ditu.

Gemes edertze aretoa

Edertasun teknika berri-berria

PRESTA EZAZU ZURE AZALA NEGUARI BEGIRA



Durana, 40 ARETXABALETA - Tel.: 943 79 99 18

XAKEA

Xakeko materiala euskaraz lantzeko beka eman diote Xabier Sarasuari

Kirol taldeetan eta eskoletan gazteekin dabilzan irakasleendako izango da material hori

MIRARI ALTUBE

Deba arroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak kirol materiala euskaraz lantzeko XII. beka banatu ditu. Lau beka eman ditu, eta xakeari dagokiona Xabier Sarasua atxabaltarrari egokitu diote. Hemendik eta apirilera bitartean, 50 bat fitxa landu beharko ditu Xabierrek.

500.000 pezetako dirulaguntza eman dio Deba arroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak Xabier Sarasuari, xakearen gainean 50 eta 65 fitxa bitartean lantzeko. 2002ko martxoaren bukaerarako aurkeztu beharko du lana, eta datoren ikasturtean hasiko dira ikastetxeetan materiala erabiltzen.

IRAKASLEENDAKO MATERIALA

Oinarrizko mailakoa izango da Xabierrek landuko duen materiala, eskola-kirolean, kirol taldeetan eta ikastetxeetan ume eta gazteekin dabilzan irakasleei zuzendutakoa, hain justu. Din A-5 formatuko fitxak izango dira, oso erabilgarriak, eta xakearen historia, arautegia, oinarrizko estrategia mugimenduak, ariketa



Xake taldeak ere izango du euskarazko materiala erabiltzeko aukera.

praktikoak eta beste hainbat lan jasoko dituzte.

Xabier ez da sekula xake taldean ibili, baina gustuko du kirola, eta ahaztutakoa berriro ikasteko aukera emango dio: "Badaikit xakean jokatzeko, baina aspaldian ez naiz ibili eta erdi ahaztuta daukat. Izan ere, horregatik aurkeztu nintzen: batetik,

denbora nuelako, eta bestetik, xakea gehiago ezagutzeko aukera emango didalako".

Materiala datorren ikasturterako egongo da gertatua. Poliki-poliki hainbat kiroleko materiala ari da kaleratzen euskaraz. Aurten, esaterako, aerobiceko eta prestakuntza fisikoko fitxak aterako dituzte.

KROSA

36 atxabaltarrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa herrikoia domekan

Eguraldi txarrari aurre eginez atxabaltar ugari hurbildu zen domekan Behobia-Donostia lasterketa herrikoira. 36 izan ziren lasterketa bukatzea lortu zuten atxabaltarrak, horien artean neska bakarra Ainhoa Murgoitio. Lehenengo helmugaratu zena, berriz, Ramon Jausoro izan zen 24. postuan, eta hamabi lagun sartu ziren ordu eta erdiko denbora azpitik.

PILOTA

Aretxabaletako bikote guztiek galdu egin zituzten asteburuan jokaturako partiduak

Klub arteko txapelketa aurrera doa, eta final-laurdenak jokatu ziren joan den asteburuan. Ez zuten emaitza onik lortu atxabaltarrek, ez kanpoan ezta etxean ere. Oraingo asteburuan, final-laurdenen buelta etorriko da. Emaitzak ikusita, Errasti anaiek bakarrik daukate aukera aurrera egiteko. Ea Aretxabaletan izan ez duten zortea Añorgan daukaten!

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Pasajes-UDA

Preferentea.

Zapatua. 16:00. Pasaia.

UDA-Ikasberri

Bigarren mailako erregionala.

Domeka. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Añorga(2)

Seniorrak.

Zapatua. 17:00. Añorga.

Aretxab.(1)-Añorga(1)

Seniorrak.

Domeka. 12:30. Añorga.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Gure Txokoa 2

Preferentea.

Zalla 3 UDA 2

Gazteen Euskal Liga.

Zumaiako 1 UDA 4

Bigarren mailako erregionala.

UDA 11 Eibar Aleg. 0

Bigarren mailako gazteak.

UDA 5 Ordizia 0

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA (b) 0 UDA 3

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 5 Andazpe 22

Bigarren mailako gazteak.

Aretxab. 6 Ordizia 22


Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. (2) 8 Añorga 22

Aretxab. (1) 16 Añorga (1) 22

Seniorrak.

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa

Zigorrola, 1 8. Pabilioia

Tel.: 943 77 11 30

ARRASATE

ERRETRATUZAHARRA

Viteri eskolako neskak azken ikasturtean



Alboko argazki zaharra 1944. urteko martxoaren 29an ateratakoa da. Orduko eskolak ez zeukan oraingoarekin zerikusirik. Orain eskulanak egiten diren moduan, garai hartan "labores" izeneko eskolak izaten zituzten neskak arratsaldean. Argazkiko neskak bordatuak egiten ari dira. Goizez, 09:00etatik 12:00ak arte, kultura orokorra ikasten zuten. Geografia, aritmetika, gramatika eta horrelakoak. Arratsaldetan, 14:00etan sartu eta 16:00ak arte josten eta bordatuak egiten ibiltzen ziren.

Miren Zuazabeitiak (argazkiaren jabeak) ondo gogoratzen du orduko eskolako diziplina. "Si, señorita" eta "No, señorita", horixe zen maistrak egindako galderei erantzun beharrekoa. Euskaraz eginez gero, bestalde, belauniko jartzera behartzen zuten. Mirenek ondo gogora-

tzen du zigor hori, hark ordu asko eman zituen-eta belauniko. Mirenen beste oroitzapen bat arratsaldeko 15:00etan egiten zen errezoa da. Oraindik ez daki zer esanahi zuen erretolika hark, baina ondo akordatzan da zer esaten zuten: "Bendita la hora que la Virgen del Pilar vino en carne mortal a Zaragoza..." Mirenen esanetan, oso espainolak

ziren orduko eskolak.

Argazkian, goian, ezkerretik hasita, hauek azaltzen dira: Eulali Zuazabeitia, Pakita Iturricastillo, "Señorita" Mercedes de los Mozos (maistra), Juanita Etxebarrieta eta Rosario Errasti.

Behean, berriz, ezkerretik hasita, Josefa Garciaetxabe, Jesusa Rodríguez, Maria Begoña Olazabal, Miren

Zuazabeitia, Jesusa Bengoa, Carmen Unanue eta Arantxa Aiestaran daude. Denek 14 urte zituzten orduan. Garai hartan, eskolara sei urterekin sartzen ziren eta 14 urterekin amaitzen zuten. Hortaz, goiko argazki hori du Mirenek azken ikasturteko oroigarri.

Argazkia: Miren Zuazabeitia

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51


**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
943 79 31 87
ARETXABALETA



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 16a / 56. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Etxeetako olio bilketan aitzindaria izan den herrian milaka litro olio jaso dituzte

AINTZANE GARDOKI

Duela bi urte hasi ziren herriko etxeetan olio batzen, Udaleko Ingurumen Sailaren eskutik. Ordutik hona hainbat modutan egin dute bilketa, baina esan behar da gero eta jende gehiagok eramaten duela olio birziklatzera. Eskoriatza izan da horretan aitzindari.

Ingurumenarekin arduratuta, Eskoriatzako herria hasi zen etxez etxe erabilitako olio jasotzen. "1999an hasi ginen. Udalak ingurumenari buruzko plangintza bat aurkeztu zuen Enplegu Bulegoan. Bi langile izan genituen, besteak beste, olio bilketa egiteko", dio Josu Azkarate Ingurumen zinegotziak. Iaz, berriz, zabor tokietan Josuk berak jartzen zituen, hilean behin, olio botatzeko ontziak.

MILAKA LITRO JASO DITUZTE

"Olio birziklatzearen garrantziaz jabetu behar gara guztiok. Erreka nahiko zikin daukagu dagoeneko, honekin ez dugu erreka garbituko, baina gehiago ez zikintzea dugu helburu, eta errekararekin batera gure etxeetako



Bost astean behin jasotzen da olio birziklatzeko

hodiari ere ezin ditugu gehiago kutsatu", azaldu du Azkaratek. Horregatik kontratua sinatu zuen Udalak Ecograss enpresarekin. Geroztik eurak arduratzen dira

bost astean behin herrira etorri eta olio jasotzeaz. Udan gutxiago jasotzen da, baina etortzen diren bakoitzean, batez beste, berrehunetik gora litro olio jaso-

zen dituzte. "Gu izan ginen honetan lehenak; orain, beste 16 herrik jasotzen dute olio. Olio birziklatu eta biodiesela egitea da helburua", dio Azkaratek.

"Bost astean behin jasotzen dute etxeetako olio herrian. 200 litrotik gora aldiro"

"Aitzindariak izan gara honetan. Gaur egun, Gipuzkoako herri askotan egiten dute"

"Etxeetako olio birziklatuz, biodiesel izeneko erregaia lortzea da helburua"

HERRITARREN HITZA / Jon Errasti


Bidezko merkataritza

Din-dan-don, din-dan-don, Eguberriaaa... Bai, horixe bera! Kortingsak, Eroskik eta abarrek apaindu dituzte inguruak bonbillatxo eta pinu moduko batzuez, barruko apalak turroi eta jostailuz bete, eta erabaki dute Eguberriaren "bederatziru-renean" gaudela eta, has gaitzkeela urteroko kontsumo-keria erakustaldirik zentzuba-koenarekin, totalenarekin.

Urtero da luzeagoa "gabonaldia". Salmenta masibora dedikatzen diren enpresek markatzen dute gero eta hutsarte motzagoak dituen kontsumoari begirako zikloa-

ren erritmoa: urtarrileko beherapenak, San Balentin, *Ya es primavera en el Corte Inglés*, Amaren Eguna, Veranoski, berriz ere eskolara, neguko moda, eta azkenik, din-dan,don.

Niri, berriz, partaide aktibo gaituen gizarte honen kontsumo-oro beharrari eta afganistandarrei elkartasuna erakutsi gura estu estu elkarteak, ematen dit zer pentsatu. Ez gara, ba, gu geu



"Bizitza baldintza duinagoak behar dituztenei lagunduko diegu"

ere bonbardatzaileen ekipokoak? Bale, konforme, gu ez gatoz hauekin bat; baina ez diogu daukagun egunerokotasun mendebaldarrari metro mixerable batean ere uko egiten. Mendebaldearen eredu yankia da hirugarren mundu txioren begietara, eta gu ekipo horretan gaude, gustatu

edo ez. Eta modu kontzientean edo ez, eredu hori praktikatzeko dugu.

Elkartasuna eta eskuhartzea, bakoitzak ahal duen neurrian. Hitzetatik haratago. Eta aurten ere hiperreroskira poltsikoak goraino eginda joango garenez, hantxe, Harreman dendatxoan, dugu gastatzeko modu egokia, hortxe, sartu eta eskuman erdi ezkutuan dagoen horretan. Itsuki gastatzen jarraituko dugunez, normalean erosten ditugun produktuen multinazional ekoizleak baino lan eta bizitza baldintza duinagoak behar dituzten pertsonen lagunduko diegu Harremanen erosten dugunarekin. Bidezko merkataritza. Elkartasuna.

LABUR

Kexak eta iradokizunak Udaletxeko ontzian

Kexez eta iradokizunez gain, edozein gutun-azal edo gutun uzteko balio du Udaletxean dagoen postontziak.

Duela urtebete jarri zuten Udaleko arduradunek postontzia herritarren zerbitzurako. Dena dela, eskoriatzarrak oso gutxi erabiltzen dute; izan ere, Udalarik kexak adierazteko, batez ere, telefonoa edo bestela zuzenean jotzen dute udal langileengana. Iradokizunak egiteko, bestalde, oso herritar gutxi animatzen ei da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

| | |
|-------------------------------|--------------|
| Udaletxea..... | 943 71 44 07 |
| Udal Bulegoak..... | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa..... | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia..... | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea..... | 943 71 46 88 |
| Gizarte-Laguntzailea..... | 943 71 31 36 |
| Kiroletxea..... | 943 71 53 28 |
| Liburutegia..... | 943 71 31 35 |
| Luis Eceiza..... | 943 71 53 56 |
| Jose Arana-Almen Ikastol..... | 943 71 44 86 |
| Almen..... | 943 71 49 07 |
| Museo-Eskola..... | 943 71 54 53 |
| Axtroki?..... | 943 71 40 77 |
| HUHEZI..... | 943 71 41 57 |
| Osakidetzak..... | 943 71 44 52 |
| Telesko..... | 943 71 49 17 |
| Taxia..... | 943 71 40 59 |

BESTELAKOAK

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Eskualde Ospital (Arrasate) .. | 943 00 53 00 |
| Gurutze-Gorria (Bergara) .. | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate) .. | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati) .. | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) .. | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz) .. | 945 23 20 30 |
| Pesa (Arrasate) .. | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) .. | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak .. | 112 |

OHARRAK

'TENTEMPIE' ANTZEZLANA
Latiriliren eskutik, Jose Arana Ikastolan, 22:30ean. Antzezlana honek lehenengo saria eskuratu du Logroño-ko Poltsikoko Antzerkia lehiaketan.

SANTA CECILIA KONTZERTUA
Santa Zezilia pasatu dela eta, bihar, arratsaldeko 20:00etan, parrokiako kontzertua eskainiko du Musika Eskola Bandak.

TXOTXONGILOAK ETA TAILERRAK I.EZEIZAN
Martitzenean, 17:30ean, Ezeiza ikastetxean txotxongiloak, eta hilaren 23an, eskulan tailerrak, 16:30ean.

AXTROKIREN AGENDA

EUSKARAREN ERABILERA
Euskal Herri osoan moduan Eskoriatzan ere euskararen erabilerraren kale neurketa egin zuen Axtrokik joan den asteburuan. Bi egunean egin dute neurketa. E-mailtzak laster jakingo ditugu.



Kolorez kolore Amuska taldea

Amuska taldeak antolatzen dituen ekintzan artean, pintura ikastaroak arrakasta handia izan du. Iaz ekin zioten 10 emakumek ikastaro honi. Maria Jesus Carrillo eskoriatzarra da irakaslea, eta hasteko, marrazketa linealari ekin zioten. Orain, 40 urtetik gorako 13 emakumek osatzen dute taldea, eta bakoitzak bere erritimoa badarama ere, koloreekin teknika desberdinak lantzen hasi dira dagoeneko. Etxekoandreak eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak elkartzeko dira astean behin, guztia ahaztu eta kolore artean murgiltzeko. Arduradunen esanetan, pintura ikastaroa ez da hilabete batzuetan ikasten den zerbait. Hori dela eta, datozen hiruzpalau urteotan ikasten jarraitu nahi dute./A.G

KIROLA

Eskoriatzarrak ere izan ziren Behobia Donostia lasterketan

AINZANE GARDOKI

10.000 korrikalari inguru bildu ziren pasa den igandean Behobia eta Donostia bitartean egin zen lasterketan. Eskoriatzarrak ere izan ziren tartean.

Jakin ahal izan dugunez, herriko 12 korrikalarik amaitu zuten froga. Jesus Mari Beloki izan zen, 1:22:11 denborarekin heldu zen lehenengo eskoriatzarra. Sailkapen orokorrean 914.a izan zen.

Neskeei dagokienez, bik bukatu zuten lasterketa. Rosa Lasagabaster izan zen lehena sartzen, sailkapen orokorreko 2690. postuan, baina bere kategorian, 45. postua lortu zuen Rosak. Bere atzetik, 7209. lekuan, Jaione Larranaga eskoriatzarra heldu zen, eta honek emakumeen artean 370. lekua hartu zuen.

BOTEPRONTOAN/ Lydia García· Yoga irakaslea

“Jende askok orain aurkitu du yoga, hala ere, zientzia honek milaka urte ditu, betidanik izan da”

L ydia García Eskoriatzako Dharma yoga elkartearen irakaslea da. Lydiak aspaldi jaso zituen yogaren onurak, eta orain, beste guztioi erakutsi nahian dabil.

Zelan hasi zinen yoga egiten?
Orain dela 13 urte hasi nintzen, eta sekulako onura egin dit. Beste kirol batzuetan nengibela zerbait falta zitzaidala nabaritu nuen. Orduan, yogan hasi eta nire burua eta gorputzarekin gero eta gusturago sentitzen nintzela ohartu nintzen. Geroztik, ez diot sekula utzi yoga praktikatzeari.
Zuk zelan definituko zenuke yoga?
Niretako yoga osasun zientzia bat da, baina baita norberaren

garapenerako dagoen sistemarik zaharrena ere. Fisikoki, mentalki eta espiritualki garatzen du pertsona yogak. Azken baten, nor bere burua ezagutzeko bidea da.

Azken boladan indar handia hartu du yogak, zergatik?
Jende askok orain aurkitu du yoga, hala ere, zientzia honek milaka urte ditu, betidanik izan da munduan, eta, batez ere, ekialdean. Orain, poliki-poliki mendebalean sartu da, eta normala da, izan ere, daramagun bizimoduarekin... estresa, lana, umeak... Denok behar dugu lasaituko gaituen zerbait, eta hori yoga da.
Zein onura dakar yogak?
Gorputza arindu egiten da, artikulazioak askatu egiten



dira, giharrak indartu egiten dira, gorputz barneko giharrak ere lantzen dira... Fisikoki asko hobetzen da, baina horrez gain, psikikoki energiaguneak suspertzen ditugu. Yoga saio bat egin ostean, askoz ere energia handiagoarekin aurkitzen da norbera.

Eskoriatzan zenbat eskola ematen dituzu?
Gaur egun, 30 bat laguneko taldea daukat. Hasieran, etxekoandreak ziren gehienak, baina orain, gero eta jende gehiago ari da hurbiltzen.
Nori gomendatuko zenioke yoga egitea?
Mundu guztiari, baina bereziki edozein mailatan bere gorputz eta adimena hobetu gura dituenari gomendatuko nioke.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540



**MIRENTXU
TABERNA**
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

Eguraldia lagun, jende asko etorri zen Gatzagara San Milixan ospatzera

AINTZANE GARDOKI

Jende asko batu zen Gatzagan joan den domekan IX. Langintzen Ferixan. Bezperako elurrek bat baino gehiago beldurtu bazuten ere, ezin ukatu eguraldia portatu zenik. Lanabes dotore ugari ikusteaz gain, gaitarien hotsa eta idiak ere ez ziren falta izan.

Goizeko 10:30ean hasi zen IX. Langintzen Ferixa. Ohitura den moduan, 15 artisau izan ziren frontoian, egun osoz, euren lanak erakusten. Hurbildutakoen artean, aurtengo kalitatea beste urte batzuetakoa baino hobea izan dela esan zuenik bazegoen.

Taloak egin eta egin aritu ziren Gatzagako andreak. Eguerdi partean, askok eta askok pazientziaz itxoin zuten talo gozok dastatzeko txanda noiz tokatuko. Herriko gaztetxoek ere euren postua jarri eta bitxiak saltzeaz gain danbolinean gatzainak erre zituzten.

Aspaldiko partez, irameta bat zelan egiten den ere ikusi ahal izan zuten Gatzagara etorritakoek.



Gaztetxoek, danbolinari eraginez, berotan pasatu zuten goiza.

AINTZANE GARDOKI



Deskantsurik gabe ibili ziren taloak egiten Gatzagako Sorginak.



Itziartik etorritako idiek ikusmina piztu zuten herrian.

AINTZANE GARDOKI

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer eskatuko zenioke San Milixani hurrengorako?



PETRA PAGALDIA
gatzagarra

Oso egun polita da. Gustura ibiltzen gara taloak egiten herriko andreok. Eskatzeokotan, eguraldi epelagoa eskatuko nioke santuari, jende gehiago etor dadin.



LEIRE APERRIBAI
arrasatearra

Urtero etortzen gara. Oso talo ederrak egiten dituzte. Baina faltan igartzen dut ibarretik etortzeko autobusa, askoz jende gehiago etorriko litzateke.



O. LÓPEZ DE MUNAIN
arrasatearra

Kalefakzioa. Eta urteak joan urteak etorri txiki gelditzen ari da, agian plazan ere jar daitezke postu gehiago. Kale animazio gehiago ere ona izango litzateke.




VANESSA GONZÁLEZ
arrasatearra

Giroa eta parajea ederrak dira, baina Dorletatik autobusa egon arren, txokolate ederra izaten da hemen. Aparkalekuak eskatuko nizkioke santuari.



EDURNE MARTELO
legutioarra

Nik ez dakit ezer eskatuko niokeen. Niretako oso ondo dago guztia, egun polita da. Agian hurrengorako eguraldi epelagoaz etortzea eskatuko nioke.



AXUN GARAI
eskoriatzarra

Kalefakzio on bat. Bestela, aurtun, iaz baino kalitate handiagoa egon dela uste dut, eta taloa betiko moduan, ederra. Gustura etortzen naiz.



BERTSOAFARIA

IMANOL LAZKANO / AITOR MENDILUZE / AMETS ARZALLUS

Non: Eskoriatzako Toki Alai tabernan
Noiz: Azaroaren 24an, Zapatua, 21:30tan.

SARRERAK: Mirentxu eta Aldatz tabernatan
PREZIOA: 3.000 pzta.

GRUPO **RKUZ**

1950-2001




TXE MOBEL
ALZARIEN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALZARIEN


Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELETRAGILUAN

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert





RKUZ
SURALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR


50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik



Murgil zaitez
estetika
osoaren
sentsazio
onuragarrietan,
L-10en

L-10
ile apaindegian,
itxura
alda ezazu



ILEAPAINDEGI
ESTETIKA
SOLARIUMA

LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABAETA